

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko ekainaren 21a. IX. urtea. 2.371. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Odriozola «lau pareten artean bahituta» dutela salatu du Herrirak

Tolosako euskal presoari elkartasuna azaltzeko ekitaldiak antolatu dituzte; bihar elkarretaratzera egingo dute Trianguloan **03**

## Digestio espezialista berrezartzea lortu dute TOPAK bideratutako kexek

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde taldeak hilaren 30erako manifestazioa deitu du **06**

## Jaia lehertuko da bihar, Belauntzan eta Abaltzisketan

Sanjoanak ospatuko dituzte iluntzetik aurrera; igandean, Abaltzisketan aizkora desafioa ikusi ahalko da, eta Belauntzan Goñi-Senperena eta Belloso-Beobideren arteko pilota partida **04**



Bonberenea Txaranga «familia handi baten modukoa» dela diote gazteek. HITZA

**Jon Altuna** Bonberenea Txarangako zuzendaria

## «Kontzertuan orain arteko lanak bilduko ditugu»

Txarangak emanaldia eskainiko du bihar, 22:30ean, Bonbereneako agertokian; azken urteetako lanaren «lagin modukoa» eskainiko dute **02**

## Hitza Txapelketako laugarren jardunaldia, iristear

Etzi izango dira pilota lehiaketako partidak Asteasun 19:00etan, Altzon 18:30ean eta Albizturren 19:00etan **07**

## Ibarrako leku publikoak aztertze tailerrak egingo dituzte herritarrekin

Plan orokorra osatzeko lehen hitzordua etzi izango da, bereziki genero ikuspegia landuz **07**

Uda honetan **zatoz**  
**HITZA**ren itzalera

Egin harpidedun  
Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra  
eta jaso eguzkitako  
hau oparri!

Harpidedunen artean  
Bikaintza Surf Federationen  
surf taula  
merkatatu dugu.

Harremankidetasun  
**902-82 02 01**  
[harpidedun@hitza.info](mailto:harpidedun@hitza.info)

**hitza**

**FUNERARIA  
VASCONGADA  
EHORZKETAK**

**902 402 900**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



HITZA

## Jon Altuna ◦ Bonberenea Txarangako zuzendaria

Kalea izan ohi da, Bonberenea Txarangaren oholtza. Bihar, ordea, Bonbereneako agertokian ariko dira, taldeak azken urteotan egindako lana gogora ekarriz.

# «Belaunaldi berriei lan egiteko beste modu bat erakustea da gure helburua»

### I. Urkizu

Bonberenea Txaranga duela bederatzirte sortu zenez geroztik, bertako kidea da Jon Altuna (Tolosa, 1987). Azken hilabeteotan zuzendari lanetan ari da taldean, eta bihar, 22:30ean, Bonberenean eskainiko duten *Etxean zuzenean* emanaldi berezia aritu da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariarekin.

**Kontzertu berezia izango da bihar Bonberenean eskainiko duzuen. Zer ikusi ahal izango dute bertaratuek?**

Beti pentsatu izan dugu kalean jozte edo emanaldi bat egitea desberdinak direla, eta bide horretan, orain arte egindako lanak bilduz, kontzertu bat egin nahi genuela erabaki genuen. Azken urteotan egindako lanaren lagin moduko bat izango da, beraz, emanaldia.

**Izan ere, hamaika egitasmotan parte hartu du txarangak bere ibilbidean.**

Bai. Beti kalean aritzen gara jozte, kalean egiten ditugu gure saioak. Datorren urtean, hamar urte beteko ditu txarangak. Azken urteotan, nahikoa lan egin dugu, eta lan horren emaitza dira argitaratu ditugun hiru diskoak: *Bonberenea Txaranga* (2005), *Rocka ta urrezko komona* (2008) eta *Pirritx, Porrotx eta Mariomotois & Bonberenea txaranga* (2011). Lan hauez gain, bestelako kolaborazioak ere egin ditugu, besteak beste, Gose taldearekin edo Martin Larralderen diskoan. Bihar eskainiko dugun kontzertuaren bidez, ordea, zerbait berezia egin nahi izan dugu. Azken finean, txaranga berezia garelako uste dut; lagun artean eta urte gutxitan lan asko egin duen txarangak. Gauza bereziak egin ditugu

orain artean: bertsioen bidez rock munduarekin uztartu genuen txaranga bigarren diskoan, eta azken urte honetan, berriz, Pirritx, Porrotx eta Marimototse-

**«Azken urteotan egindako lanaren lagin modukoa izango da emanaldia»**

**«Duela bederatzirte sortu zen txaranga, eta hiru disko grabatu ditugu»**

**«Bonberenea Txaranga familia handi baten modukoa da, txaranga berezia gara»**

kin aritu gara. Azken egitasmo honekin, euren emanaldi batzuetan jo izan dugu, antzokietan edo bestelakoetan.

**Eta emanaldi hau bera, beste agertokiren batean errepikatzeko asmoirik ba al duzue?**

Iazko udaz geroztik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kantuekin ari gara, diskoa eurekin promozionatzen ari baitgara. Biharko emanaldiaren bidez gure ibilbidearen nolabaiteko laburpena egingo dugun arren, oraindik ere, urte bukaerara bitarte, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen hainbat emanaldi hitzartuta ditugu. Eurekin ditugun azken emanaldiak egin ondoren, azke-

naldian lan dezente egin dugunez, atsedean pixka bat hartuko dugu. Baina posible da, kontzertu formatu horri buelta batzuk ematea, eta biharko oinarri hartuz, aurrerago, beste kontzerturen bat eskaintzea.

**Bonberenea Txaranga sortu zenez geroztik, belaunaldi berrietako musikariak ere sartzen joan dira, ezta?**

Bonbereneak guri aukera eman zigun, duela bederatzirte, txaranga osatu eta lan egiteko, eta guk aukera bera eskaini nahi diegu atzetik datozeinei ere, txaranga eta familia handituz. Izan ere, Tolosan eta inguruan, musika ikasten duten gazte asko daude, baina ohiko banda edo inauterietako txarangaz haratago, belaunaldi berriei lan egiteko beste modu bat erakustea da gure helburua. Honekin batera, noski, musikalki eurek haztea nahi dugu. Horregatik, geronek animatzen ditugu gazte txarangaren parte hartzera, gure baloreak ezagutu ditzaten.

**Zenbat kide zarete gaur egun?**

Azken finean, lagun kuadrilla handi bat sortu dugu. Hasiera-hasierakoan artetik, batzuk jada ez dauden arren, txaranga ez du inork erabat uzten. Batzuk jarraitasun gehiagorekin aritzen gara, baina bada urtean bi edo hirtan etortzen denik ere. Bonberenea Txaranga familia handi baten modukoa da, eta guztiok osatzen dugu taldea: urtean bitan etortzen direnek, eta emanaldi guztietan parte hartzen dutenak.

## Bosgarren eskulan eta mineralen erakusketa, Amarotz auzoan

Beti Gazteak jubilatuek antolatutako elkarteak antolatuko dute, eskulangintza eta mineralen erakusketa, Beti Gazteak jubilatuek antolatutako elkarteak antolatuko dute.

### I. Urkizu

Amarotz auzoan bosgarren urte antolatuko dute, eskulangintza eta mineralen erakusketa, Beti Gazteak jubilatuek antolatuko dute.

Auzoko festetako egitarauaren barruan izango da erakusketa, datorren uztailaren 1ean, goizez; Amarotzko festa gunean jarriko dituzte postuak. Aipatzekoa da, egindako lanak erakustez gain, artisauak lanean ere ariko direla jendaurrean.

Horrela beraz, erakusketan parte hartu nahi dutenek, Beti Gazte jubilatuek antolatutako elkarteak antolatuko dute, beharko du, 653 74 71 92 telefono zenbakira deituz.

◦ tolosa@hitza.info

## Egiptoko musika hizpide izango da Leidorren, Muguruzaren filmarekin

Udako zine zikloko bonoak eskuragarri daude jada; uztailaren 9an amaituko da egitaraua

### I. Urkizu

Fermin Muguruzaren *Next music station* dokumental sortaren barruan, Egiptoko musikari eskainitako filma ikusgai izango da, gaur, 19:15ean eta 22:30ean, Leidor aretoan.

Uum Kulthum, Abdelhalim Hafez edo Mohammed Abdelwahab bezalako abeslari handien oinordetzak eutsitako herri tradizio biziarekin baina telebista-kultura eta bideokliparen eragin indartsuarekin, egungo Egipto bere kultura musikala bereizten duten elementuak batzen ahalegintzen da. Hori guztia ikusi ahal izango da, Leidorreko pantailan.

Era berean, uztailaren 9an amaituko den zine ziklorako bonoak eskuragarri dira oraindik, Leidorreko leihatilan.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Herrira mugimenduak agerraldia egin zuen, herenegun arratsaldean, Tolosako kultur etxean. I. URKIZU



Argazki erakusketan ikusi daitekeen irudietako bat. HITZA

## 'Sua' filma Leidorren ikusi aurretik, erakusketa

I. Garcia Landa Tolosa

Ibarrako Eneko Haritza kultur elkarteak egindako *Sua* filma emango dute Tolosako Leidor aretoan, hilaren 29an, 20:00etan. Sarrerak sei euro balio du eta Tolosako Denak eta Raku tabernetan, eta Ibarrako Subegi elkarte-

an eta Atari eta Zubiaurre tabernetan daude salgai. Bien bitartean, filmari buruzko argazki erakusketa ikusi daiteke Tolosako kultur etxean.

Algotan ere filma emango dute uztailaren 13an, eta uztailaren 2tik 13ra bitartean argazki erakusketa izango da ikusgai.

### → Laburrak

#### Tolosako Orfeoia, aurtengo San Joan Suan

**KULTURA** ▶ Ekainaren 23an, larunbata, Tolosako Orfeoia Andre Maria plazan egingo den San Joan Suan parte hartuko du, eta ohizko zortzikoarekin batera Enrique Ugartek Tolosako 750. urteurrenerako konposatutako eta Karlos Linazasoren letra duen *Tolosako Ereserkia* abestuko du. Orfeoia tolosar guztiak abastera animatu ditu, eta sua egiten den bitartean papertxo bat banatuko dute, ereserkia abestuz ahal izateko.

#### San Joan bezperako eta eguneko elizkizunak

**GIZARTEA** ▶ Santa Maria parrokia Tolosako zaindaria den San Joan Bataiatzailearen jaio-tza ospatzeko elizkizunen berri eman du: bezperan, 20:00etan, Arrameleko elizan lehenengo bezperak; San Joan egunean, meza nagusia 10:00etan, Santa Maria parrokian, koruak eta orkestrak lagundurik; ondoren, ohiko prozesioa San Joanen irudiarekin; 16:45ean, bigarren bezperak Santa Maria parrokian eta, ondoren, Arrameleko elizan arratseko otoi-tza (konpletak).

#### Iruñeko txistulari bandaren bisita, San Joan egunean

**KULTURA** ▶ San Joan egunean, igandean, kontzertu berezia emango dute Tolosako eta Iruñeko udal txistulari bandek eta Tolosako musika bandak. Urteak dira Iruñeko txistulariak etor-tzen direla Tolosako sanjoanetara eta Tolosako txistulariak Iruñeko sanferminetara joaten direla. Hiru musika taldeak elkarrekin ibiliko dira San Joan egun osoan zehar (diana, alardea, prozesioa, bezperak, aureskua) eta eguerdiko 13:00etan kontzertua eskainiko dute Berdura plazan, bereziki aukeratutako erreperitorio berezia interpretatuz. Gainera hiru taldeek elkarrekin Txomin Mujikaren *Zestoatik Bilbora* biribilketa eskainiko dute.

#### Emakume arraunlariei bideoa, bihar, Topic-en

**KIROLA** ▶ TAK arraun taldeak, 2012ko emakumeen arraun denboraldia hastera doala eta, bihar Tolosako Topic zentroan bideo bat aurkeztuko dute, 19:30ean. «Arrauna, gizonezko kirola bakarrik ez dela eta, Tolosaldeko emakumeek, Getarikoekin batera egindako lan gogorra, kirol honetaz beraiei gogoetak, ikuspegiak, egunerokotasuna, ideiak, eta abar erakusten dira bideoan», azaldu dute arraun taldeak.

# Pello Odriozolari «biziarteko zigorra» kentzea eskatuz, ekimenak antolatu dituzte

Herrira mugimenduak deitu ditu, eta, besteak beste, tolosarra preso dagoen Zuera espetxera joango dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Pello Odriozola preso tolosarrari «biziarteko zigorra» ezarri diotela salatu du Herrira mugimenduak eta aske uzteko eskatu du. Herri-rak azaldu duenez, Odriozolak «2008ko uztailaren 2tik aske egon beharko luke, baina Parot Doktrina aplikatu eta bere askatasunaren eguna 10 urtez atzeratu zuten». Hori dela eta, ekimenak antolatu ditu aste honetan eta hurrengoan, Odriozolaren askatasuna eskatzeko. Ekimenen artean, hilaren 30ean, Odriozola preso dagoen Zuera espetxera joango dira, presoendegiaren aurrean ekitaldia egiteko.

Herrirak gogora ekarri du Odriozolak 24 urte daramatzala «lau paretan artean bahitua», eta 197/2006 doktrina «mendekuaren legedia» dela esan du. «Giza eskubideen ikuspegitik begiratzuz gero ulertezina da espetxeko politika anker hau», esan du, eta gaineratu: «Mendekuan oinarritutako espetxe politika hau, presoak suntsitza bideratuta dago, pertsona suntsitu eta ingurukoak zigortu».

Herrirak «are ulertezinagoa» ikusten du espetxe politika, «Euskal Herriak bizi dituen garaiei erreparatuz gero». Herrirak dioenez, «azken garaietan argi ikusi da herritarren gehiengo euskal presoaren eskubideen alde lerroka-

### ↓ Ekimenak

#### EKAINAK 22, BIHAR

■ **19:00.** Tolosako Plaza Berrian elkarretaratzea egingo dute, *Biziarteko zigorrik ez! Pello herrira* lelopean.

#### EKAINAK 26, ASTEARTEA

■ **19:00.** Tolosako udaltxearen aurrean, Plaza Zaharrean, agerraldi masiboa.

#### EKAINAK 28, OSTEGUNA

■ **19:30.** Tolosako kultur etxean

tu dela». Espetxe politika horri buelta emateko «giltza eskuetan dutenak» herritarrek direla esan du. «Guztion ekarpenekin lortuko dugu kartzelan pairatzen diren eskubide urraketak gainditzea. Guztion aktibazio eta implikazioa beharrezkoa izango da erroka handi bezain desiratu hau aurrera eramateko», gaineratu du presoaren eskubideen aldeko mugimenduak.

#### Espetxean beste 10 urte

«Espainian ez dago biziarteko espetxeko zigorra ezarrita, baina praktikan biziarteko zigorra ezarrita dagoen estatuaren baina urte gehiago pasatzen dituzte presoek espetxean: 30 urte edo gehiago», zehaztu du Herrirak. 1973ko kode penalaren interpretatzeko modua Espainiako Auzitegi Gorenak 2006an aldatu zuela nabarmendu du Herrirak: «30 urteko topearen gainean aplikatu beharrean erredentzioak, zigorra-

hitza antolatu dute, biziarteko zigorraren inguruan.

#### EKAINAK 30, BIHAR

■ **08:00.** Zuerako espetxera autobusak aterako dira. Autobus-sean joateko, izena emateko zerrrendak ohiko lekuetan

■ **12:00.** Espetxe aurrean ekitaldia, eta ondoren, itzulerako bidean, bazkaria Tuteran inguruan.

■ **19:30.** Euskaldekako manifestazioa Tolosako Trianguloa plaza-tik abiatuta, *Biziarteko zigorrik ez! Pello herrira* lelopean.

ren osotasunari aplikatzen hasten dira. Beraz, praktikan erredentzio sistema horrek ez du efekturik eta 30 urte osorik bete behar dituzte presoek».

Hamabost urtetik gora espetxean egotea «osasunarentzako txarra dela dio Europak», esan du Herrirak, eta gogora ekarri du «euskal preso politiko asko» dau-dela hamabost urtetik gora daramatenak bahituta Espainiako eta Frantziako espetxeetan. Herri-rak gaineratu duenez, «psikologikoki bortitza da presoekin horrela jolastea: bat batean espetxean beste 10 urte gehiago egin behar dituzula esatea».

Horrela, Odriozolaren egoera salatzeko antolatu dituen ekimen horiek guztietan parte hartzeko gonbidapena egin die Herrirak euskaldekako bizilagun guztiei. «Denon artean lan eginez lortuko dugu gure herriko eserleku hut-sak betetzea», adierazi dute Herrira mugimendutik.

# Suarekin batera piztuko diren jaiak

Abaltzisketan eta Belauntzan San Joan jaiak ospatuko dituzte; bihar iluntzean emango diete hasiera

**Eneritz Maiz** Abaltzisketa/Belauntza

Iritsi dira urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena. Beraiekin batera suak, sineskeriak eta festak. Herri guztietan izango dira suarekin inguruan egindako festak, baina Tolosakoez gain, Abaltzisketan eta Belauntzan ere herriko jaiak sanjoanetan ospatzen dituzte.

Bihar emango diete hasiera,

eta egitarau ederrak prestatu dituzte festarako gogoia dutenentzat.

Abaltzisketan, afaria norberak eraman beharko badu ere, sagardo dastaketarekin emango diete hasiera. Beste bi egun izango dituzte aurretik, eta ekitaldiz bete-beteak izango dira. Horien artean, aizkora desafioa izango da jende gehien bilduko duenatariko bat. Herritarrak diren Ipintza anaiek, Unai Otaño ibartarraren aurka neurtuko dituzte indarrak. Abaltzisketarrek zortzi kana erdiko moztu beharko dituzte, eta ibartarrak, berriz, 60 ontzako zortzi enbor. Igandean, 12:00etan izango da desafioa. Zaldi lasterketa, berriz, 18:00etan izango da.

Belauntzan, bihar, mus txapelketa izango dute festei hasiera emateko. Atzetik, beste hiru egun izango dituzte. Larumbatean, herri afaria izango dute. Herri afarian izena eman behar da, eta epea gaur bukatuko da. Udaletxean eman behar da, eta izena ematerakoan ordaindu beharko dira 25 euroak. Afariko txartel bakoi-tzak zerbaki bat eramango du, eta arkume edo txerrikume baten zozketan sartuko da.

Igandean, pilota partidak izango dira, eta etorkizuneko ostenan, Mikel Goñi eta Senperena, Bellosa eta Beobideren aurkakoa izango da. Astelehenean, umeek izango dute jolasetan eta puzgarrietan ibiltzeko aukera.



Sua izango da herriko festetako protagonistetako bat. ANEGANZARAIN

## ↓ Abaltzisketako eta Belauntzako San Joan Jaiei egitarauak

### ABALTZISKETA

#### EKAINAK 22, OSTIRALA

■ **21:00.** Sagardo dastatzea izango da herriko plazan, eta afaria bakoitzak berea eraman beharko du. Larrarte, Isastegi, Rufino, Etxeberria, Zalbide, Begiristain, Sarasola, Aburuza, Zabala. (Nahi izanez gero, oilaskoak, hirugiharra... salgai egongo dira).

■ **Ondoren.** Laiotz taldearekin erromeria.

#### EKAINAK 23, LARUNBATA

■ **10:00.** Ume jolasak.  
■ **15:30.** X. Mus Txapelketa Larrunarri elkartearen.  
■ **21:30.** San Joan Sua.

■ **Jarraian.** San Joan dantza eta soka dantza herriko gaztetxoek dantzaturik.

■ **Ondoren.** Dantzaldia Unsain anaiekin.

■ **Atsedendian.** Aulki jokoa egingo da, eta irabazleak saria izango du.

#### EKAINAK 24, IGANDEA

##### San Joan eguna

■ **11:00.** Meza Nagusia.  
■ **Jarraian.** Herriko gazteen trikitixa emanaldia, eta jubilatuen entzako hamaiketakoa.  
■ **12:00.** Apustua.  
■ **13:00.** VIII. Toka txapelketa.  
■ **18:00.** Zaldi lasterketa Armezketatik Abaltzisketara.  
■ **Ondoren.** Herriko gazteen arteko jokoak.

■ **21:00.** Barrikotea herriko plazan afaria norberak eraman da. Afariari laguntzeko Beñat Iguaran eta Mikel Artola bertsolariek osatutako bertso saioa.

■ **Jarraian.** Festei amaiera emateko, erromeria izango da Elustondo anai-arrebekin.

### BELAUNTZA

#### EKAINAK 22, OSTIRALA

■ **21:00.** Mus txapelketa aurre finalak eta finala, Martintxo elkartearen.

#### EKAINAK 23, LARUNBATA

■ **13:30.** Txupinazoa.  
■ **19:00.** Kontzertua, San Joan elizan.

■ **21:00.** San Joan bezperako sua, kanpai jotze eta suzirikin girotua.

■ **Ondoren.** Herri afaria izango da.

■ **23:30.** Latino dantza emanaldia izango da.

■ **Jarraian.** Elustondo anai-arreba trikitilariarekin erromeria, goizaldera arte.

#### EKAINAK 24, IGANDEA

##### San Joan eguna

■ **09:00.** Diana txistulariekin herrian zehar.  
■ **11:00.** Meza nagusia San Joan elizan.  
■ **Ondoren.** Hamaiketakoa izango da herriko tabernan, Zerberio eta Mañukorta bertsolariekin.

■ **18:30.** Bi pilota partidu izango dira frontoian: etorkizuneko pilotarien arteko izango da lehena, eta Mikel Goñi eta Senperena bikotea Bellosa eta Beobide bikotearen aurkakoa bigarrena.  
■ **Ondoren.** Erromeria Ai ene! taldearekin.

#### EKAINAK 25, ASTELEHENA

■ **17:00.** Umeentzako jolasak eta puzgarrak izango dira.  
■ **Ondoren.** Txokolata jatea.  
■ **19:30.** Etxean egindako patata tortilla eta pintxoien lehiaketa.  
■ **20:00.** Saiheski jatea herriko entzako plaza inguruan izango da. Pagadi eta Etxeberriku trikitilariak alaituko dituzte festetako azken orduak.

**Izarrak plazarara**

talentu lehiaketa

Hautaketa proba: ekainak 26  
Lehiaketa: ekainak 28  
Inbaurrondo Kultur Etxea

Kontzertua eta iraganak

**INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEKO**  
ekainak 22 baino lehen  
plazaragoaz@gmail.com  
628552066  
intxaurrondo@donostia.org  
943279343

**epaimahaiaren saria 500 €  
ikusleen saria 300 €**

**teknologia berriak eta kultur produktuek erosteko bonak**

**Aurkezlea eta Epaimahai**

Fernando Ruiz  
Ainhoa Aierbe  
Bary Marley  
Edu Murumendiaraz  
Itxaso Guibertz

## Intxurre Pilota Eskolak entrenamenduak antolatu ditu udarako

Doan izango dira eta izena eman beharko da Alegiako kultur etxean; ikasturte amaiera dela eta, afaria egingo dute

la eta Adur Murua izango dira entrenatzaile lanak egingo dituztenak. Entrenamendu hauek doan izango dira. Izena kultur etxean eman daiteke, edota 18:00etatik aurrera, 943 65 46 98 (Maria) telefono zenbakira deituz.

### E.Maiz

Hilabete honen azken astean eta uztailaren lehen hamabostaldian, Intxurre Pilota Eskolak entrenamenduak eskainiko ditu Alegiako pilotalekuan. Entrenamenduak hilaren 26an, asteartean, hasiko dira eta Alegiako herriko festak bitartean iraungo dute, hau da, uztailaren 12an bukatuko dira.

Asteko bi egunetan izango dira: asteartean eta ostegunetan, 18:30etik 19:30era. Iñaki Arto-

### Ikasturte amaieran, afaria

Intxurre Pilota Eskolako pilotari txikienek, bihar, hilak 22, afaria egingo dute. Intxurre elkartearen izango da 20:30ean, eta alebin maila artekoentzako izango da. Dagoeneko 30 haurrek eman dute izena.

Hilaren 29an, berriz, infantil mailatik hasi eta nagusien maila bitarteko pilotariak izango dute afaria. Bigarren honetan, Altzoko Elordi elkartearen elkartuko dira pilotari guztiak.

● [alegaldea@hitza.info](mailto:alegaldea@hitza.info)

Tolosatik abiatzen den arren, 4,7 kilometroko ibilbide lasai eta lauak, Ibarra zeharkatzen du alderik alde; San Joseko ermitan hartu behar da itzulerako bidea.

# Ibarraren bihotzean, zubitik zubira

**Asier Imaz** Ibarra

Ibarra herrian itzuli bat ematen denean, nekazaritzaren garrantzia agerian gelditzen da. Beste hainbat herritan, etxebizitzak eraikiko zituzten, erdigune hauetan, baina Ibarra oraindik baratzeak ikusten dira. Herriaren bihotzean, nekazaritza, eta guztiaren erdian, Ibarra pipar ospetsuak.

Ibarra alderik alde zeharkatzen duen ibilbidea, Tolosako tren geltokian hasten da. Oinez edo bizikletaz egiteko egokia da, laburra eta laua izaki, patxadaz hartzeko osteratxoak baita. Geltokitik, zezen plazara joango gara,



## DATUAK

- **Luzera.** 4.700 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenetan Tolosako erdiko geltokira iritsita.
- **Hasiera-bukaera.** Tolosa erdiko tren geltokian.
- **Zailtasun maila.** Tren geltokiko eskailera.
- **Azalpenak.** Hiri ibilaldiaz gain, erreka ertz polita.
- **Interesguneak.** Zumardiaundia, Arane baserria, San Bartolome eliza, Azkue baserria eta San Joseko ermita.

ondoren Oria ibaira gerturatzen. Tolosako ibai nagusienak bi aukera eskaintzen ditu; eskuinera edo ezkerrean. Zezen plazari bizkar emanez, ezkerrean egingo dugu, Zubi Berrira iritsi arte. Hau zeharkatu eta Ibarraren gertutasuna errepideko seinaleetan ikusiko dugu. Errepideari, ordea, ez diogu jaramonik egingo kasu honetan. Zubi Berrira zeharkatu ondoren, eskuinera hartuko baitugu, garai bateko igerilekuetara gerturatuz. Egun, etxe berriak eraiki dituzte bertan.

Errepidea gurutzatzeko garaia iritsi da. Eskuinera eta ezkerrean begiratu ondoren, zebraibidea zeharkatu behar da: Kondoko alda-pa eskuinean, Oria atzean, eta Zumardiaundia aurrean, Berastegi erreka-ondoan. Puntu honetan, beraz, bi ibaiaren artean aurkituko gara. Berrito Tolosaldera hartuko bagenu, ibaiak nola el-

kartzen diren ikusiko genuke, baina aurrera egingo dugu, Ibarra helburu.

## Zubirik zubi

Tolosa eta Ibarraren arteko mugan hiru zubi daude, bata bestearen azpian. Ingurabidea, handiena, autoentzat bakarrik da; beste biak, oinezkoentzat eginak dira. Bat bera zeharkatu gabe, aurrera jarraituko dugu, lorategi bilakatu den Zumardiaundia zeharkatuz. Berastegi erreka ezkerrean dugula, Ibarra San Inazio auzora iritsiko gara. Aurrerantzean ikusten ditugun zubi guztiak ezkerrean utziko ditugu, zeharkatu gabe. Errekari eta bide gorriari jarraituz, Arane iturria eta baserria, herriko plaza eta eliza, eta Azkue auzoa pasako ditugu. Bide honetan, baratzeak han eta hemen ikusiko ditugu, emankortasunez gainezka. Azken zubiak, San Josekoa izango da, aldamenan izen bereko ermita duela. Hona iristen garenean, itzulerako bidaia hasteko garaia izango da.

Kasu honetan, herriko plazara gerturatzen garenean, zubi zaharra zeharkatuko dugu, Ibai Gain kalean gora eginaz. Ibarra zeharkatzen duen errepidea eta kalea ikusiko dugu gure begien aurrean, Euskal Herria kalea. Tolosaldeko noranzkoa hartuko dugu, beheantz doan malda arinean. Eskuin ezker berriro ere sorokin egingo dugu topo. Ibarra sarrerako zubi handia urrun ikusten dugunean, Txumitxan, zubi zeharkatuko dugu, joaneko bidearekin bat eginaz. Ibaia eskuinean, Zumardiaundira gerturatuko gara, baina oraingoan, ibaiaren beste



Tolosa eta Ibarraren mugan hiru zubi daude, bata bestearen azpian. A. IMAZ

aldetik igaroko dugu lorategia. Bariantearen azpitik, zuzen joango gara biribilgunera. Hemendik aurrera, tren geltokira itzultzeko mila aukera daude. Hala eta guztiz ere, behin inguru horietara gerturatuta, Tolosako Alde Zaharrean barrena ibiltzeko aukera gaitzea bekatua litzateke. Oria ezkerrean dugula, Zumardi Txi-

kian barrena, Nafarroako Zubi iritsiko gara, eta hau zeharkatuz, Tolosako bihotzera. Zerkausia gure aurrean ikusiko dugu, larunbatero azoka egiten den eremua. Gauzak horrela, beraz, larunbatero Tolosako eta Ibarra bihotzek bat egiten dutela esan daiteke, barazki eta baserriko produktuen azokan.



Tolosa eta Ibarraren arteko ibilbidearen mapa. HITZA



Azkue baserriak eta izen bereko auzo berriak bat egiten dute. A. IMAZ

## Birziklatze tasak

Astigarraga

33%

atez ate  
83%

Oartzun, Antzuola  
Usurbil, Hernani,

## Zabortegira doana

Usurbil

10%

67%  
errefusa

Arrasate



Osasunagatik  
Ingurugiroak  
kezkatzeko gaituelako  
Ongizate arrazoiengatik  
Seme-alabengatik  
Arrazoi ekonomikoengatik

**ondo**  
egitera  
**goazz**



# Asuncionen langileen %53 gutxiago dagoela salatatu du TOPA plataformak

Gipuzkoako beste eskualde ospitaleekin alderatu du langile kopurua eta gabezia dagoela ohartu da

**Itzea Urkizu** Tolosa

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak, urtarri-laz geroztik bildutako informazioaren berri emateko batzarra antolatu zuen pasa den larunbatean, eta, besteak beste, Asuncion klinikaren, langilearen %53a falta dela salatatu zuen.

Urtarrilean egindako azken batzarretik hona, koordinakundeak kideek Asuncion klinika Gipuzkoako zenbait ospitale publikoekin konparatu dute, langileari dagozkion datuak eskuratzeko. Horrela beraz, Zumarraga, Bidasoa eta Mendaro ospitaleetako datuak aurrez aurre jarri dituzte Asuncion klinikakoekin. «Guk daukagun informazioa, mediku espezialistena da, eta gure datuak horretan oinarritu ditugun arren, klinikako gainontzeko esparruetan ere datuak bertsuak izango direla uste dugu», dio TOPAko Kristina Pelaezek.

Aipatutako ospitaleetan, mediko espezialisten kopurua erkatu dute, baina garrantzia berezia eman diote, espezialista bakoitzaren lan orduak: «Asuncion klinikan, esaterako, langile nahiz es-



TOPAk batzarra egin zuen aurreko larunbatean, Tolosako kultur etxean. R.CALVO

pezialista asko ez dira lanaldi osoan aritzen», dio Pelaezek. Hala, ospitale bakoitzak artatu beharreko biztanle kopurua ere oso kontuan izan dute, eta datu hauekin guztiarekin, batz besteko moduko bat atera dute.

Ondorio moduan, Asuncionek artatu beharreko 65.000 biztanleak kontuan izanda, klinikako langileen %53a falta dela salatatu du TOPAK.

## **Aldarrietatik lorpenetara**

TOPAk espezialitateen ambulatorioa behar bezala hornitzea lortzeko, eta eskualdeko biztanleen eskubideak betetzeko, kexa orri batzuk jarri zituen ambulatorioe-

tan. Urtarriletik hona, erabiltzaileen 600 kexa bildu dituzte guztira. «Kexa asko dira, eta hainbat gauza lortu ditugu kexa hauen bitartez», nabarmendu du Pelaezek.

Besteak beste, Asuncion klinikako medikuak, beren tituluari dagokion lanpostuan aritzea lortu dutela azpimarratu du TOPAK: «Birkokatu egin dituzte, dagozkien lapostuetan». Izan ere, espezialista moduan ari ziren hainbat medikuk, ofizialki onarturiko espezialista titulurik gabe aritzen zirela salatatu zuen koordinakundeak urte hasieran, dokumentu ofizialetan arakatu.

Bide beretik, digestio medikua

espezialitateen ambulatorioa itzultzea ere lortu dutela azpimarratu du Pelaezek, hainbat kexaren bitartez: «Astean bitan bakarrik etortzen da, baina guretzat oso-oso garrantzitsua izan da hau, espezialitateen ambulatorioak zabalik jarraitzea gure helbururik behinenetakoa baita».

Azkenik, laser izpien zerbitzua era publikoan erabiltzeko eskubideari dagokionez, lorpenak nabarmendu dituzte TOPAko kideek.

Prostatara arazoak dituztenentzat, bi teknika daude gaur egun: kirurgia edo laser izpiak. Asuncionek, orain arte, azken teknika hau erabiltzeko aukera

Donostiako Pilar klinika pribatu bakarririk eskaintzen zuten eta kirurgia izaten zen beste aukera. «Pilar-en, ordea, 6.000 euro ordaindu behar zen ebakuntza. Kontua da, sare publikoan, Gasteizen, laser izpien bidezko ebakuntza egiteko aukera ere bazela, eta orain arte Asuncion klinikak ezkutatu egin duela hori». Kexekin osatutako hiru txandaren bidez, beraz, Tolosaldeko biztanleek ebakuntza hau burutzera Gasteizera joateko eskubidea izango dute aurrerantzean.

Azkenik, aipatzeko da TOPA koordinakundeak manifestazioa antolatu duela datorren ekainaren 30erako. 12:00etan abiatuko da Triangulotik

## **Asuncion, Europan**

Asuncion klinikako lehendakari exekutiboa den Jesus Gomez Montoyak, Espainia ordezkaturiko du, Parisen antolatu duten Europako Ospitale Pribatuen Batasunen batzordean.

Asuncion klinikak azaldu duenez, Europako ordezkariak Euskal Herrian «aitzindarizat» jo dute Asuncion, klinikako erabiltzaileei euren mediku-historia internet bidez ikusteko aukera eskaintzeagatik.

TOPA koordinakundeak, bere aldetik, «Asuncion Klinikaren egiten ari den kanpaina mediatikoaren zatia» dela uste du, eta «irudia garbitzeko» modua dela: «Halako goxokiak saldu nahi dizkigute, arreta zerbitzu ona daukagula sinistarazteko. Bi hilabete hauetan atera dituzten bost erreportajeekin egin nahi izan duten moduan».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## **Irudia** Leitza



## **LEITZARRAK NAGUSI ESKOLARTEKOAN**

Pasa den ekainaren 9an, Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala ospatu zuten, Larrainzarren, 14 urtetik beherako mailan. Bertan, Joanes Illarregi leitzaarra suertatu zen txapeldun,

eta txapeldunordea ere Leitza Beñat Altzelai izan zen. Horrela beraz, Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera joateko txartela eskuratu zuten gaztetxoek. HITZA

## **→ Laburrak**

### **Joxe Arregi plazaren urbanizazioa hizpide, gaur**

**ZIZURKIL** › Udalak bilera deitu du gaurko Joxe Arregi plazako etxebizitza lanen egitasmo hiritartze edo urbanizazio fasearen inguruko azalpenak emateko. Proiektua aurkeztu eta hobekuntza proposamenak jasotzea da bileraren helburua, herritar guztien gustuko gunea sortu ahal izateko. Bilera irekia gaur izango da, 19:30etik aurrera. Atxulondo kultur etxean.

### **Pintura eta egur lanketa tailarren erakusketa**

**AMASA-VILLABONA** › Villabonako pintura eta egur lanketa ikastaroetako ikasleek egindako lanak ikusgai daudela aljibearen, ostrala bitarte. Irekita egongo da 17:00etatik 20:00etara.



Euskal Herria kaleko 37. zenbakian dagoen bulegoan dago jarrita erakusketa. IT.

## Genero ikuspegitik landuko dute Ibarako hirigintza

Plan orokorra idazteko prozesuaren barruan, tailerra egingo dute etzi, herriko leku publikoak aztertze

Iñigo Terradillos Ibarra

Arau berriztatzaileen tramitazioa eten ondoren, maiatzetik martxan da Ibarako Plan Orokorra zehazteko prozesu parte hartzailea, Ibarra Antolatuz lelopean. Hiria Kolektiboko arkitektoak ari dira lanean, prozesuaren lehen zati honetan. Lehengo, gaur egungo eta etorkizuneko Ibarra aztertzen ari dira, herriko eragileen eta norbanakoen ekarpenekin. Bada, helburu horrekin, lehen tailerra egingo dute etzi, Euskal Herria kaleko 37. zenbakian kokaturiko bulegoan, 10:00etatik 13:00etara. Bertara, ibartar guztiak, baina, bereziki emakumeak deitu dituzte.

Tailer honetan, Ibarako espazio publikoak aztertze tresnak emango dituztela azaldu dute. «Nahiz eta azken urteetan gauzak dezente aldatu diren, oraindik ere, emakumeak izan dira orokorrean, eta Ibarra ere, kale eta

plazetan denbora gehien eman dutenak. Hori dela eta, Ibarako emakumeek bertako kale eta plaza gainean duten jakintza jaso nahi dugu», adierazi dute. Hala, formakuntza txiki bat eskainiko dute, «emakumeen ikuspuntu honek etorkizuneko Ibarra pisu berezia izan dezan».

Hirigintza, beraz, genero ikuspuntutik landuko dute, mugikortasuna, segurtasuna eta espazio publikoak aztertuz, «eguneroko bizitza egoki baten garapenerako bidean».

### Erakusketa eta iritziak

Bestalde, Hiria Kolektibokoek azaldu dutenez, etzi prest izango dute bulegoan egiten ari diren erakusketa. Beraz, tailerraren ostean, erakusketa ikustera eta bertan iritziak ematera gonbidatzen dituzte ibartar guztiak. 13:00ak aldera izango da, eta mokadutxoak jarriko dute gerturatzen diren guztientzat.

Prozesuaren hurrengo ekimena uztailaren 14an egingo duten lan foro irekia izango da. Bertan Ibarako onurak, gabeziak eta etorkizuneko beharrak azaltzen eta adosten saiatuko dira. Irailean egingo dute azken foroa. Maiatzetik uztailera ateratako infor-

mazio guztia aztertze aukera izan ondoren, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak jasoko dituen irizpide eta helburuak proposatu eta adostuko dituzte.

### Ibartarrei deialdia

Duela ia hilabete jarri zen martxan prozesua, eta tarte horretan, Hiria Kolektibokoak udal teknikariekin, merkatariekin, Uzturpe ikastolako gazteekin, jubilatuekin edota landa eremuko herritarrekin izan dira, informazio «aberatsa eta baliagarria» bilduz. «Ibarra ulertuz ibili gara, eta hementik aurrera Ibarra elkar ulertu nahi dugu, eragile eta herritar gehiagoren iritzi eta gogoetak jasoz», esan dute. Horretarako, Euskal Herria kaleko bulegoko ordutegia zabaldu dute. Uztailaren 14ra arte, astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara izango dira.

Gaiak Ibararen etorkizunean izango duen garrantzia dela eta, herritar oro gonbidatu eta animatzen dute bulegora joatera erakusketaren inguruko ekarpenak egitera, eta etziko tailerlean eta aurrera begira egingo diren parte hartza.

## IX. Hitza Txapelketako partidak izango dira, etzi

Laugarren jardunaldia jokatu dute pilotari gazteek Asteasuko, Altzoko eta Albizturko pilotalekuetan

### E. Maiz - I. Terradillos

Hiru jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko IX. Hitza Pilota Txapelketan parte hartzen ari diren pilotari gazteek. Bihar laugarren jardunaldiko partidak jokatu dituzte, alebinek, infantilek eta benjaminiek, Asteasun, Altzon eta Albizturren.

Alebinei dagokien, Asteasun 19:00etan ondorengo partidak izango dira: Olazabal-Eraso Olasagasti-Zabalaren aurka; Morales-Zeberio Otaño-Elolaren aur-

ka; Iraola-Alberdi Goikoetxea-Arruabarrenaren aurka; eta Ugartemendia-Lasa Elizegi-Otaegiren aurka.

Altzon, berriz, 18:30ean hasiko dira infantil mailako partidak: Arandia-Aizpitarte Oiarbide-Muruaren aurka; Luzuariaga-Otaegi Egibar-Ezeizaren aurka; Altuna-Zubeldia Arrate-Tormoren aurka; eta azken partida Elola-Jauregi Zubeldia-Artolaren aurkakoa izango da.

Albizturren, bestalde, lau partida jokatu dituzte, benjamin mailako pilotariak 19:00etan hasita: Altuna-Estarbe Altuna-Iraetaren aurka; Lasa-Lopetegi Aizpuru-Izagirreraren aurka; Esteban-Zubeldia Amondarain-Galartzen aurka; eta Zeberio-Morales Aranalde-Zubillagaren aurka.

### ↓ HITZA Pilota Txapelketako emaitzak

INFANTILAK		Otaño-Elola	16
Arandia-Aizpitarte	18	Aizpuru-Zabala	10
Arruti-Luzuriaga	2	Olasagasti-Zabala	16
Luzuriaga-Otaegi	18	Onsalo-Karrera	11
Arrate-Tormo	12		
Dorransoro-Zinkunegi	5	BENJAMINAK	
Amondarain-Lasa	18	Altuna-Estarbe	16
Altuna-Zubeldia	18	Altuna-Perurena	2
Egibar-Ezeiza	7	Otaño-Rekondo	9
Jauregi-Pagola	18	Altuna-Sarasua	16
Iraza-Mujika	12	Lasa-Lopetegi	16
Oiarbide-Murua	18	San Sebastian-Muñoa	4
Mozo-Alustiza	16	Uzkudun-Artola	16
Elola-Jauregi	18	Aburuza-Olasagasti	14
Mujika-Zubeldia	3	Huizi-San Sebastian	16
		Eraunzetamurgi-Perurena	12
ALEBINAK		Esteban-Zubeldia	16
Agirre-Zubeldia	16	Elduaen-Iraza	3
Goiburu-Intxaurren	4	Zeberio-Morales	16
Perurena-Ruiz	16	Goiburu-Agirrezabala	14
Usandizaga-Sarasua	7	Agirrezabala-Urkiri	5
Iraola-Alberdi	16	Gorostidi-Ugartemendia	16
Iruetagoiena-Arzamendi	9	Iztueta-Altuna	9
Ugartemendia-Lasa	16	Aranalde-Zubillaga	16
M. Murua-P. Olano	8	Amondarain-Galartza	16
Esteban-Gorostidi	4	Sorrrain-Auzmendi	9
Elizegi-Otaegi	16	Regillaga-Regillaga	8
Zugasti-Bengoia	16	Aizpuru-Izagirre	16
X. Murua-J. Olano	14	Otermin-Galarraga	1
		Tolosa-Herrero	16

### Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



## KAXILDA BELOKI GARMENDIA

Aiz ze algar kamurekoa  
naiz lanez leher eginda  
gazi-gozoa dugu bizi  
gaur alai bihar min da  
portuko dia lehen joandakoak  
bazatzena jakinda  
agurtu zure-gure senda  
musu bat fia Kaxilda

Zaldibiko libak

Zaldibiko, 2012ko ekainaren 21a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Lurreamendi egoitzan Adinekoen Astea ospatzen ari dira. Gaur meza izango dute, 10:30ean; bingoa jokatu dute kartekin, 11:00etan; eta Alaitu abesbatza entzuteko aukera izango dute 17:00etan.
- **Anoeta.** Herriko jaien inguruko balorazioa egiteko bilera egingo dute gaur, 19:00etatik aurrera, udaletxean. Udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartu eta ekarpenak egitera.
- **Zizurkil.** Gaurko bilera deitu du udalak. 19:30ean bilduko dira Atxulondo kultur etxean urte hasieran hasi ziren Joxe Arregi plazako etxebizitza lanen inguruan hitz egiteko. «Hiritartze edo urbanizazio fasea izango da lan horien azken zatia eta proiektuaren berri emango dugu», azaldu du udalak.

**MUSIKA**

- **Anoeta.** Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua, gaur, 18:00etan, Mikelasagastin.
- **Aduna.** Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte amierako emanaldia, gaur, 19:00etan, elizan.

**ERAKUSKETAK**

- **Villabona.** Bukatzeaz den ikasturtean udalak antolatutako pintura eta egur-lanketako ikastaroetako ikasleek egindako lanekin erakusketa osatu dute. Lan guztiak aljibeetan daude eta ostirala, hilak 22, arte ikusi ahal dira, 17:00etatik 20:00etara.

# Udalaren jarduna gerturatzeko tresna berriak, Zizurkil

Herritarrei informazio gehiago emateko helburuz argitalpen berri bat kaleratu dute, besteak beste

**E.M.-R.C.** Zizurkil

Zizurkilgo Udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi du, eta horretarako udalaren jardunaren inguruko informazioa jaso behar dutela uste dute. Horiek horrela, bi dira komunikazio bideak: argitalpenak eta webgunea.

Argitalpeni dagokionez, bate-tik, Zer ote? eskuorria egiten jarraituko dute, eta, bestetik, aldizkari bat kalerat dute hiru hilabetez behin.

**Zer ote?**

Zer ote? hilero etxetxe bantzen duten eskuorria da. Bertan udalak edo herriko elkarteek antolatutako ekitaldiak jasotzen dituzte, eta baita deialdi eta diru laguntzen inguruko informazioa ere. Eskuorriak, dena den, ez du bestelako informazioa emateko



Luengo alkatea, Zubeldia eta Labaien, atzo, aurkezpenean. E.M.

aukera eskaintzen, ezin baitira gaiak sakon landu, eta hori dela eta argitalpen berri bat kaleratzea erabaki du udalak: Plaza Berri. Urtao aldaketarekin batera argitaratu dute, eta atzo, 3. zenbakia atera zuten. Plaza Berri egiteko ardura komunikazio eta parte hartze batzordeko zenbait kaltetari eta zizurkildarrek dute, boluntario moduan, eta horrek

produktua bideragarri egiten du. «Udalak egiten duena jakinarazteaz gain, herritarrek eta bereziki, herriko elkarteek, beren txokoa izango dute», esan zuen atzo, Leire Zubeldia komunikazio zinegotziak. «Saiakera berezia egiten dugu argitalpen irekia izateko, gaiak eskatzean, oposizioaren ahotsa ere jasoz», gaineratu zuen. Argitalpena ekonomikoki

bideragarria izateko Zer ote?ren kostua jaistea lortu duela argitu zuten.

**Webgune berriak**

Komunikazio tresna berriekin amaitzeko, webgunea aipatu zuten atzoko aurkezpenean. Amaia Labaien da webgune dinamizatzailea.

Lehen, udalaren web orria, Windows-en menpeko ASP sisteman egindakoa zen, horrek, ordea, muga batzuk zituen, eta beraz, kode irekiko sisteman landutako webgune berria abiaraztea erabaki dute. Webguneak lau helburu nagusi ditu: diseinu aditetik erakargarriagoa izatea; herritarrei informatzeko eta parte hartzeko aukera gehiago emateko ataria sortzea; informazioa igotzea erraztea, udaleko langileek eurek egiteko modua lortzeko; eta udalaren atari guztiak batu eta gune erreferentziala sortzea.

Webgune berriak atal gehiago ditu, erakargarriagoa da, parte hartzea errazten du, eta dokumentuak igotzeko aukera eskaintzen du, beteak beste.

«Berrikuntzak eginak daude, orain tresna berriak eskura izanda, horiek indartsu eta bizi mantentzea dugu helburu, komunikazioa ezinbestekoa delako udalaren eta herritarren artean», gaineratu zuen Amaia Labaienek.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

**ANTIQUAKO XXII. HERRI LASTERKETA**

**23**

**10** km

**ANTOLATZAILAK:** berria hitza BAGERA

**LAGUNTZAILAK:**